

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresa harreman pertsonalean oinarritzen da. Bezeroaren ongizatea eta erosotasuna kontutan hartuta, eskaintza presentziala eta online-eskaintza konbinatuko ditugu bezeroarentzat ahalik eta erosotasun gehiena eskaintzeko. Hala ere, gehiago bermatzen saiatuko garen harremana presentziala da, bezeroarekin aurrez aurreko kontaktua mantenduz, erostasunari eta kalitateari garrantzia emanez.

Enpresa eta bezeroen arteko harremanetan, laguntza pertsonalizatuari garrantzi handiena emango diogu, esan dugun bezala, erosotasunaren punturik altuena aurkitzeko eta honela emaitza edo ondorio errealeak eta onenak ateratzeko beharrezkoa dugulako. Aldi berean, dedikatutako laguntza eskainiko diogu bezeroari, noski. Neurri bideragarri batean, bezeroak behar duen denbora erabiliko dugu ongizatea bermatzeko. Nolanahi ere, 24/7ko dei-linearen zerbitzu bat izango dugu, larrialdietarako.

Astero galdetegiak egingo dizkiegu haien ikuspuntua eta asebetetze maila ezagutzeko eta etengabe hobetu eta moldatzeko gure zerbitzua, haien erostasuna bermatzeko.

Bezeroen egorea psikologikoaren egoeraren eboluzioa ezagutzeko, jarraipen bat egingo diogu bezero bakoitzari. Modu honetan, gure zerbitzuan konfidantza jarri duten pertsonen egoera hobetu dezakegu eta zerbitzua bezeroaren beharretara egokitu ahal izateko momentu guztian, gure bezeroak nola eboluzionatzen duen kontuan hartuta.

Gizakiok, urtean behin egun berezi bat daukagu geure burua ospatzeko eta ondo sentitzeko; gure urtebetetzea. Gu, enpresa bezala, gure bezeroekin egon nahi dugu haien egun berezian, eta haien urtebetetzean zorion mezu bat bidaliko diegu.

Nahiz eta antolatuko ditugun irteeren berri beste leku batzuetan jakin ahal izango duten bezeroek, gu, email pertsonalizatu bat bidaliko diegu informazio horrekin. Momentuz, etxe rurala daukagu disfrutatzeko gure artekoekin.

Laburbilduz, gure bezeroen fidagarritasuna lortzeko, beti egongo gara haiei eta sor daitezkeen zalantzei begira, bai aplikazioari buruz, bai haien hobekuntzari buruz.